

## ASIER MENDIZABAL

Asier Mendizabal artistak hitzaldi bat eman zuen *We Rule the School* izeneko mintegiaren barruan "...fikzio lerro batean" izenburupean. Hitzaldian ahaleginak egin zituen arte jardunak egiaren arazoarekin topo egiten duen puntu hori bilatzeko. Horretarako, bere ustez fikzioaren eta egiaren arteko "tirabirak" sortzen dituen arazoak garbien erakusten dituen dokumentala aztertu zuen.

Asier Mendizabalen iritziz, ekoizteko modua argituz bermatzen du dokumentalak bere "egiatasuna": "artifizioa ikusten dugulako sinesten dugu". Batzuetan, ordea, gertaeren irudikapen literalak agerian jartzen du "egiarik" eza. "Egiazkoaren" nonahikotasunak "egiaren" beharraz pentsarazten du. Asier Mendizabalek "tirabira" horren adibide jarri zituen Nick Broomfield dokumental zuzendariak egindako dokumentalak, bera beti azaltzen baita bere filmetan, eta *Gonzo* pornoa, alegia, pornografiaren barruko generoa, non filmaren zuzendaria, aldi berean, protagonista eta kameratea den. Bi kontaketa mota horietan fikzioa erabat ezabatzen da errealitatea agertzeko helburuarekin, "baina batzuetan egiak fikzio egitura du, Lacanek zioenez".



Dokumentalean, kontaketa planifikatzeko ezintasunak eraginda, batzuetan gauza batzuk gertatzen dira, egintza traumatikoak, sinbolizatzen ezinezkoak gertatzen direnak. Asier Mendizabalen iritziz, horrelakoetan azaltzen da egiazkoa. Arazo horien adibide gisa Maysles eta Zwerinen *Gimme Shelter* dokumentalaren zati bat erakutsi zuen artistak. Film horrek Rolling Stones taldearen Altamonteko kontzertu bat jasotzen du: ikusle bat hil zuten *Infernuko Aingeruak* taldekoek, kontzertuko segurtasunaz arduratzen ziren haiek. Gertaera hori, traumatikoa eta iragarriezina, kontaketa barruan sartu zuten sekuentzia baten bitartez: Mick Jagger ageri da gertatutakoaren grabaketa bati begira, mobiola batean. "Bilaketa bat dago irudikaezinaren berri emateko modua aurkitzeko. Eta ari gara hurbiltzen artean egiaren leku gisa proposatu nahi nuenera, harrigarria bada ere, fikzioa deituko diodan horretara", adierazi zuen Asier Mendizabalek.

### **Goierri Konpeti**

Iñaki Garmendiarekin batera egindako dokumental bat da *Goierri Konpeti*, eta gazte autozale amorratuen talde bat erretratatu du. Asier Mendizabalek grabaketan bizi izan zuten unerik larriena kontatu zuen, bere protagonistetako bat auto istripu batean hil zenekoa, hain zuzen ere. Egileek filmarekin ez jarraitzea eskaini zieten protagonistei, zailtasuna baitzegoen gertaera traumatiko hura sinbolizatu eta kontaketa barruan sartzeko, baina azkenean denek batera erabaki zuten aurrera jarraitzea. Eszena bat filmatu zuten, non dokumentaleko protagonistak istripuaz

hizketan ageri diren, "editatzera behartu ginen lehen gauza izan zen, onartezina baitzen gainerako materialarekin jarraitzea baldin eta narrazioak normalizatuta gelditu ez zedin eszena horri eman behar genion irtenbidea geroratzen bagenuen".

Gizaseme zailak sinbolizatu nahian, narrazio dokumentalaren barruan fikziozko bitartekoak sartzearen beste adibide bat *Rude Boy* dokumentala da. The Clash taldea bere ibilbidearen une gorenean erretratatzeko duen film bat da. Kasu honetan narrazioan txertatzeko osagairik korapilatsuena taldearen irudi ideologikoa zen, zeren eta gehiegizko ikur ideologikoez ikusleari kontraesanak iradoki bailiezazkioke, edota arazoak, halakorik ez dagoenean. Horregatik sortu zuten zuzendariek Rude Boy pertsonaia, taldeak erabiltzen duen lengoia politikoarekiko begirada inozo eta mesfidatiarena egiten duena. "Irudikapen batean egia ez da gertatzen errealitate dokumentatuaren egitasunagatik, baizik eta egiazkotik sortzen den eta narrazioaren zentzua ixtea galarazten duen osagai baten agerpenaren bitartez. Egia hori identifikatzen saiatu gara gaur, (...) Egiazkoaren eta errealitatearen arteko arrailan kokatutako egia hori", esan zuen artistak.

Bitarteko horien guztien helburua, Asier Mendizabalaren arabera, esaten denaren eta ulertzen denaren artean dagoen aldea inork erabil dezan eragozte da. Horregatik, haren iritziz, artea eremu pribilegiatu bat da honelako irudikapenak sortzeko: egia, "egia irekia, interpretazioari lotu gabea", fikzio lerro batean azaltzen den irudikapen horiek.

-----

## CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.